

## NIRE GAZTAROKO BIZIMODUA

*Ondoko orrialde guzti hauetan Rexu Arburuak (Resurrección Arburuak) bere bizitza "guztia" kontatu du. Berak 74 urte ditu eta Etxalarren jaio zen eta oraindik Etxalarren bizi jarraitzen du. Lehen "Peruarneko Borda" baserrian bizi zen arren, ezkondu ondoren, herriko "Argiñenea" etxera joan zen bizi zera. Esan beharra dago berari izugarrizko ilusioa egin ziola bere biziako kontu zahar guztiak kanpora ateratzeak, aspaldiko partez. Farre asko egin du baina baita negar ere. Sentimendu guztiekin kontatu du kontatutako guztia. Beraz, hementxe dago dena hitzez hitz. Nahiko hizkera "arraroa" dela esaterik badago, izan ere, bere gurasoen-gandik belaunaldiz-belaunaldi jasotako hizkuntza erabiltzen du. Etxalarren hitzegiten den bezala hitzegien du berak. Besterik gabe, hona hemen "NIRE GAZTAROKO BIZIMODUA":*

Nahi oabe  
desorabatu egim  
zait pati haur, zinta  
baletik

bestera grabatzen pasatzerakoan. Guztia idatzitakoan

Baserritarra nahiz ni, Peruarneko bordakoa eta famili haundeya  
giñen, sei ume ta atta ta ama, zortzi. Eta ordun zerriya hiltzen genun  
haundiya. Ta zerriya ahal bezain haundeya egiten genun eta prestatzen  
giñen ungi zerriya hiltzeko egunian denak. Zerri hiltzillia etortzen zen  
herritik oinez, bere zakurrakin gu esperuan. Itxin sartutzian errantenzun  
"Debo gracias" eta gu denak han sokakin ta prestatuak eta orduan izaiten  
ziren zerriyak nahiko salbajiak, ez guinguak bezalko motelak. Beti biziya  
kanpun itenzten eta gosiak ta biziya ateitzenzten bieurek kanpuan,  
auniztan ezkurra ta gaztañian. Ta gero pixko bat itxian azitzen genitun,  
artua bildutzezin ta. Xur-xurra emaiten genion beti. Ta prestatzen giñen.  
Famili haundeya izaiten giñen. Batek hartzen tzun odola, bertze bi-hiru  
zerriya ekontzen, bueno, ta baztan kostatzen zaion zerriya hiltzia, etzula  
igual ungi azertzen.

Eta zerriya hiltzen zuen denborian, alkiyan gaintikan yautsi beiti eta  
iratzikin erre iten genun. Eta gero erreta, ur beruak in garbito; eta garbito

maiztu, may, oxitox, taf, wör

*nabalakin. Ta gero ya garbitzen tzun denborian tripak ateri. Eta tripak ateri... eta... paratzen tzun tente paratzen tzuen egur baten gaiñian izaiten zen letaraziri bat bezala, egur baten gaiñian ura botatzeko. Goizian hil ta arrasle arte han hura oztutzen utzi. Gero handikan hartu eta puska to eta bueno, hasitzen giñen egun hartan, hasitzen giñen uriñak urtutzen, odolkiak egiten, eta, bueno, franko mantso aritzen giñen. Famili haundeya ta besta bezala zelebratzen genun egun hura eta gero, bueno, hurrengo egunian, hasitzen giñen lokainkagaiak xetzen eta zerreya gazitzen parato gazitian... (guain antzinera segito...) eta gero arratsian denak odolkiak goxo-goxuak jaten, eta orduan etzen izaiten bakarrik ere gustatzen etzaionikan. Denari gustatze zaigun aunitz, ezpaitzen izaiten bertze aukerikan; bertze aukerikan ezpaitzegon. Eta orduan sagardua eta ardua zahar batek ola jaten... edaten balinbazuen bertze gaiñekuak sagardua. Elkarrekin zirikan ta juergan pasatzen genun egun hura.*

*Itxian izaiten genitun fruta aunitz, arbola aunitz.. gieunek iten*

*genu sagardua bagenun makina sagardua iteko. Gieunek iten genun nahi  
genun bezalko sagardo ona gero iten genun txartxigua, "bildarra" deitzen  
zaio, hura gaztañak jenak pixkobat mexigua izaiten zen, eta nahiz zerreyak  
eta nahi jendiak denak gauza beretsuak jaten genun dena itxin eginko  
gauzak, zerrayak gizentzen gintun itxeko gauzakin: kalauza, petebarra,  
itxin iten genun artua. Denak itxin yendiak yaten gintun gauzak eta denak  
izaiten ziren hagitz sanuan orduan.*

*Bueno, orduan lan aunitz iten genula beyak itzitzen ta zerreyak  
bazkatzen ta orduan arditan ta gero senide zarnak gaztinak zaitzen ta  
ordun eskola biñon gehigo izaiten zela lana.*

*Beldurra haundeya, amari batez. Begenun anai bat, ama erristan  
hasitzekin hartzen tzun besutan ta irriz paratzen zuen ta ordun haren  
kolerak pasatzen zituen irriz. Eta orduan izaiten genun lana azkarki  
dentan. Batin antxuak erami bihar ziela, bertzian beyak edanazi bihar*

*zirela, bertzian zerreyan bazka ekarri bihar zela, zerreya bazkato bihar zela, beyak itzi bihar ziela... Dena nola iten genun, elkarri lagunduz. Eta zarnak hasitzen ziren goizego lanian, bertziak gaztiak eskolan ta geixigo ibiltzen ziren. Aldi batian bi senide; bat anaia ta bertzia ahizpa yuan zien landara belarrera; harera, eta han haserto ziren ta torri ziren itxera attari kontatzera haserto ziela kontatzera. Attak eiko atia itxi ta biyek.. paliza eman zien biyei fuerte ta bialdi zitun berrizere lanera ta handik antzinera ederkj moldato ziren biyek ez baitzuten bertze erremedio... iñorket mañak, iteko manerikan; ederkj moldato zien biyek.*

*Ta orduan nola aunitz izaiten giñen; dibisionia haundeya, miserikin eta maitasun gehigo.*

*Izaiten ziren itxe haundeyak ta hagitz idekiak zaiten genun lurko su bat ximeni haundeyak in ta hango berotsuna dena yuaten zaigun ximenetikan. Atia itxitzen bagenun kja iten zaigun, denak gaizki einko*

*gauzak ziren orduan... eat hala denak kuartora yuaiten giñenian ere zenbatez gehigo yuaten giñen ta berugo ni oroitzent nahiz aldî batian mantikan ez ta koltxoi bat paratua gaintikan mantan partez. Ta izugarri kontent bero-bero in nuela lo. Ordun koltxoiak zaiten gintun azkarki; bat biño hobekio zaiten ziren bida, nola ardiyak ta zaiten gintun, ardiyan illia ere zaiten genun azkarki itxian eta hek garbito ta ekin koltxoia ausarki guatze guzitan bi koltxoiekj zaiten genun. Eken gaiñera auniztan ttikiyak giñelikan ezin yuanez alko alturakin. Guatzik ere altun izaiten ziren eta bi koltxoiekj iduinzen baguzigijela piso batera.*

*Komuna izaiten genuen kanpuan. Eta izitzen giñen arrastan yuatera, lautik hirutan ezkenun izaiten argirikan, ta izitzen giñen ta elkarrekin horixe hasitzia haski genun erristan hasitzeko. Ez genun elkarri lagundo nahi izaiten, ta zirikan. Bat niarrez ta bertzia hareri zirikan ta hantxe ezin moldatoz eyian. Ta alden tokira yuaten giñen ondarrian.*

*Ta goyan zaiten gintun berrize belarra, illarra, patata, artua, ta bueno sagarrak ta urteko kosekxa guzeyak goyan zaiten genun. Ta eyian berrizere izaiten ziren ordun beyak, ta bueno, astuak ta zerriyak ta olluak, ta dentikan. Eyia ere bete xamarra ekontzen genun. Ta eyia ta goya denak, igualtso bete-betiak, Itxetx haundeyak binon bueno zerbaitekin betetzen ziren. Yendiakin ta... azindakin ta... gauzakin betetzen zien orduan.*

*Lehen biritzen giñen arropa hagitz korrientikin. Goizko mezara tortzen giñen eta espartziñak basimaintun berri somarrak hagitz kontent. Ta gero, meza entzun eta bertze mezara atta edo ama tortzeko. Paratzen zuen amak itxian manteliña. Guk paratzen genun elizko atian manteliña. Harek guañikan gehigo guk biño gehigo egiten zuen itxin paratua tortzen zen manteliña. Eta attak berrizere, denbora hetan yauntzitzen ziren zaharrak izanta ere txalekuakin eta bueno trajiri emaiten zioten importantzia haundeya. Zaharrak izanta ere trajia.*

*Gu giñen sei senidel; lau ahizpa ta bi anai, ta anaia beti eskoltikan eskapo gelditzen ziren. Eķ nunbaitere bilatzenzten aitzakia eskolara ez etortzeko. Etzaioten gustatzen. Ta gu berrizere, tortzen giñen gustora tortzen giñen eskolara, ta pasatzen genun ungi. Goiztan laster ederrak iten gintun eskolara beti oñaz etorribihar izaiten genun. Berando xomar ateri. Goiztan gustatzen zaigun lo gehigo egitia ere ama beti oyuka ta erristan hasitzen zaigun biño ala ere gostatzen zaigun yikitzia. Eta gero bidian lasterka. Gero nahiz eskolan ez kainzten kaso haundirik iten, ordun zaiten zen haur aunitz eskolan ere maestra batentzat. Ta bueno, han, rekreuan ta gero ungi pasaten genun aritzen giñen yuxtetan soka-saltuan ta hura zen gauzikan... yuxtetikan ederna guretzat; kandeleroka ta soka-saltuan. Ta gero bazkaltzera... bagenun herriyan itxel bat... hola... familiakua. Han bazkaltzen genun ta berrizere arratsaldian eskolara yuan ta gero eskoltikan yuan bihar izaiten genun abudo itxera han izaiten gintun lan pilatbat in biharrak ta...*

*Ta gero eskolara yuan gabe gelditzen giñen nolanahi. Itxian lanak arrautzen ginzen mahiz. Batin itzamutil zela bertzin ardi zai zela, belatian ta dena zakurrak ta, yendiak.. haurrak, bihar izaiten zuten ardeyak zaito eta bueno ez zen ordun guain bezala enpeintzen maestruk ta maestrak ere. Denak igualtso Ez zuten beñe paratzen examinik ta iten. Notak ere berdiñak izaiten gintun; ez txarrikan ta ez onikan. Ta ez dute importantzirikan emaiten guain bezala.*

*Ta mutikuak ta nixkak beti berex. Mutikuak frontonian ta pilotan ta bertze... izaitenzten. Ta gu berrizere gere yuxtetak. Ordun guaingotikan hagitz difente, hagitz berex ibiltzen ziren mutikuk ta nixkak.*

*Zaiten ziren trintxerak ta niduak.. ez tuzo ikusten belatitan ta nola diren errestuak. Belatitan ta nola diren...*

*"Ingeniero, salvador, con el pico y la pala..." Ba, nik badakit, nik*

*ikasi nitun kantan ederki. Zenbat kanta! Pentsazue zenbat urte diren! Ta,  
hor, Maxterneko Maria Luisa ta Mariasunek... ekin ikasi omente erdara,  
erraiten zuen. Bai... ala erraiten te. - Guk ttiki-ttikitikan soldadukin ikasi  
du erdara. Itxetik ateri orduko soldaduak ta denak ordun erdaldunak  
izaiten ziren. Bai... ondoko itxi hartan... Ta bueno, beti soldado...*

*Haurren kontua beti soldaduna yuan soldadukin solasian, ttikiyak,  
Guañikan ni gaztia nintzen ta guañikan...*

*Ta bai.. ez takizu Maixterneko bordako soldaduak nola kantatzen  
zuten. Ze politak ingenieruak! Bai... hagitz politak Han Peruarmeko  
bordakuak ingalaterra izaiten zen. Hoiek denak bertze guardia ta bertze..  
zaiten zien. Hor.. bai, bai, tabika guziya bota ta dena paratozten pisua bat.  
Han lo iteko soldaduk, Bai... hiru kuarto ta sala baziren lau. Ta dena bat  
paratozten. Inzten kuartel gisa, dena tabika botata.*

*Ta gero ofizialik, sargentua edo... afereza edo hoiiek etortzen ziren  
lo itera Peruarenko Bordara. Hor elkarrekin, ni beti oroitzen naiz salako  
kuarto berri eder batin itenzten lo itenzten Peruarenko Bordan. Bai.. hek  
etzuten soldadukin iten... hek elkarrekin itenzten lo.*

*Kantatzenzten han, soldaduak han, bertze ondoko itxian egongo  
ziren. Eta etortzen ziren ofizialia<sup>k</sup> ordun gure itxera lo itera. Sargentuak  
edo.. aferezak.. o... tenientiak ta soldaduak goizten kantatzenzten eta gu  
han aritzen giñen heken kantak aditzen. Ta hunela kantatzenzten:*

*"Cara al sol con la camisa nueva  
que tu vordaste en rojo ayer  
me hallarán la muerte si me llega  
y no te vuelvo a ver.*

*Formaré junto a mis compañeros  
Que hacen guardia sobre los luceros*

*si te dicen que caí, me fui*

*al puesto que tengo allí*

*Volveran banderas victoriosas*

*al paso alegre de la paz*

*y traeran prendidas cinco rosas*

*las flechas de mi haz*

*volvera a reir la primabera*

*que por cielo y tierramadre espera*

*Arriba escuadras a vencer*

*que en España empieza a amanecer."*

*"España... UNA!*

*España... GRANDE!*

*España... LIBRE!*

*Arriba España*

*ARRIBA!!!"*

*Soldaduk bezala instrukziuak egiten, ni "Margarita" nintzen, bai, ordun izaiten ziren "Falangistak" ta "reketiak" ta ni nintzen "Margarita". Bueno, nixkak "Margarita". Eta arropa, boneta gorriyakin, kola horiyakin zintzilka. Ta arropa, uniformia soldaduna. Ta izaiten genun sargento bat irausten ginzena hospitale itxelaldin ta, instrukzioan. Eta mutikuak tortzen ziren kamionian. "Peña Juanito" hori beti oroitzen naiz. Hoyek han izaiten ziren. Oyek izaiten ziren... zera... "Reketiak". Ta... "Por diós, por la patria y por el rey... carlistas con banderas... Por diós, por la patria y por el rey, carlistas aurrera. Lucharemos todos juntos, todos juntos, en unión defendiendo la bandera de la santa tradición. Y cueste lo que cueste vamos a conseguir que salga..." nola da? "El rey de España..." (nola da, eztakit nola den). Ba! zenbat kanta soldaduk zien eiñak. Ordun etzen soldadu bertzerik hemen. Ta zera... "Margarita", bai. Oroitzen naiz. "Margarita" nintzen ni, reketiak izaiten ziren mutikuak ta nixkak izaiten ziren "Margaritak". Ta ni ibilia naiz "Margarita". Bai, ta oroitoko da bai oikere baite zera... hango "Bazterretxea"-na horiek ta oroitzen naiz. Ta ordun*

*izaiten ziren zera... "Falanjik", ek uniforme azula erautenzten ta guk kaki. Bai, reketik kaki. Bai, Xerafina Inda ta guañik hori bizi da. Hoiek izaiten ziren Falanjistak, Hoiek Falajien eskudukin sakelian eta bueno, ta ein zian gainera Rosario Lezak, ein zian gainera hura, uniformi hura, josi zian. Han Ixabelen itxjan. Berin aritzen ziren yosten ta arek yosi zian; Rosario Lezak.*

*"Caballín, porque hoy es San Antonio. Salta, salta caballín, quea.. que así frío no tendrás." Salta salta caballín, hori beti eskoliko atin eiten genun jinasi hori. Hori izaiten genun gure kanta. Salta salta caballín.*

*Oroitzen naiz bertze kanta huntaz ere:*

*"-Soldadito, soldadito*

*de la guerra viene usted"*

*-Si señora de la guerra*

*que se le que se le ofrece a usted*

*- Ha visto usted mi marido*

*en la guerra alguna vez?*

*- No señora no la he visto*

*ni se ni se de que seña es*

*- Mi marido es alto, rubio*

*de palabras muy cortes*

*y en la punta de la espada*

*lleva señas, lleva señas de un marqués.*

*- Con las señas que usted dice*

*su marido muerto está*

*en Valencia le mataron*

*en casa, en casa de un Jerobés.*

*Oh señora si usted quiere*

*contigo me casaré*

*-Atras, atras caballero*

*no sea, no sea tan descortés*

*Siete he esperado*

*otras ocho esperaré*

*si a los quince no aparece*

*religiosa, religiosa me entraré*

*Un hijo que yo tengo*

*Franciscano lo entraré*

*y una hija que yo tengo*

*connigo connigo la llevaré*

*El dinero que recojo*

*a los pobres partiré*

*las alhajas que yo tengo*

*en la plaza, en la plaza las venderé.*

*Con el dinero que recojo  
rosarios compraré  
y el día que suba al coro...  
por au alma, por su alma rogaré  
-Calla, calla Margarita,  
no seas tan descortés,  
yo soy tu amante esposo  
y tu mi, y tu mi linda mujer."*

*Ainbertze urtez soldaduk konto gintuz itxian, itxe onduan, kanta  
aunitz ikasi nitun. Hek nola aritzen ziren kantari mahiz, ikasi gintun. Gu  
haurrak giñen ta ikasi gintun eken kantak, Ta hau da bertze kanta bat.*

*"Pues la vida del soldado en campaña  
es muy triste y dolorosa comparada  
con aquellos que en España se dibierten*

*en los cines y teatros con su amada.  
Con aquellos que en España se pasean,  
presumiendo de zapato y buen capote  
y nosotros desnudicos y descalzos  
recibiendo la intemperie de la noche.  
Recibiendo la intemperie de la noche,  
Defendiendo nuestra madre la bandera.  
Y teniendo por hogar una trinchera  
por vecino los rojillos y las fieras.  
Españoles, españoles,  
acordaros de estos pobres  
que p'a saver lo que es sufrir  
hay que venir aqui.  
No sabemos cuendo es fiesta ni domingo  
pues la guerra no se ocupa de disfraces  
Por el dia y por la noche vigilando*

*evitando las tragedias de un ataque.*

*Madre mía, novia mía*

*reza por mi noche y día*

*cuando a tu lado podré volver*

*ay que pronto ha de ser.*

*Gu biziak gera, ta asten giñen berando eskolan ta beti karrikarrak,*  
*izaiten ziren gu biñon listoguak ek hasten ziren goizego eskolan eta gero*  
*jakitenzten erdara. Gu arront itsuak gelditzen giñen eskolan hasita.*  
*Ezkenun yeuse yakin, maestruk ere denbora etan denak erdaldunak ziren*  
*ta guk aunitz sofrituak gera gere uskara hunekin. Ta, labrantzan aritzen*  
*giñen beti eta ezkenun gero eskolan ere hasitzen giñen denborian bertze*  
*herrikuak izaiten ziren gu biñon listoguak "conprogres a Maria" ta elizara*  
*yuaten zien ta gu beñe ezkiñen yuaten. Eskoltik ateri ta segidun itxera.*  
*Bidian yuaten zaigun denbora. Bihar genun gere denbora ere itxera*

*alletzeko illundo gabe eta ezkenun yeus, beñe partizipatzen karrikan  
haurrekin. Beti berex, beti berex giñen karrikarrak eta baserritarra. Eta,  
bueno, irri franko ere bai, guain denak igual da biñon irri franko ere iten  
ginzten. Gu beti tontuk giñen ta irri franko iten ginzten. Bakarrikan,  
gurekin balitzen ziren neguan; gaztain-denborian. Guk gaztain erriak... ek  
abilloguak zien ta zerbaite igual eskolan guri pixkot irautsi ta guk gaztain  
erriak eman. Eta, hola, tontua beti engaintua, bizituak gera.*

*Eskoltik ateita yuaten giñen katekesisera. Ta, ni hain xuxen,  
berando xomar hasiya, ta urte bat gibelego ein nun komuniua ere, ez nun...  
Libro kozkor bat eman ziaten ikasteko. Hura ikasteko abildaderikan ez  
nuen. Ez nuen guañikan leitze ungi ikasia ere. Eta orduko apezak franko  
gaxtuak zien ta... ba... guaingotikan haitz difentiak Agintzenzten hagitz  
aunitz, ieurek ustezten jangoikun ordezruk ta jangoikua hainbat baziela ta  
gu, xoxuak, beti eken menian bizituak gera. Guain, hagitz difente die  
denak. Guain apeza izan edo bertze edozin izan dena berdin da. Biño,*

*orduan, denbora etan apez bat ikustian daldarian yartzen giñen gu, izituak. Eķainbertze agintzenzen, ta ezpagintun ikasten gere doktrinak ungi, hasi ta akabo. Hasi azaltikan ta ondarko puntaño... Eta beti... bueno... tontuak, hola bizito gera sofritoz.*

*Kastiguak ere izaiten gintun. Biartikan hartu eta eskin batetik berteran han ibili eta gu hantxe, umill-umilla biarri gorri-gorriyakin beti.*

*Igandero-igandero yuaten giñen mezara, zuzen demonio. Eta gero apeza han hasitzekin sermoia iten, yuaten zen pulpitora. Harek, berriz, paratzen zuen denak niarrez. Haek patenztuen, haren errana infernua, ta ya iduitzen tzaigun biamunian infernura baguzila... Eta, balinbagenuun soin bat maukamotza azpiyan parato bihar genun puñuak; hura, tapato bihar genun besua. Ta gonak ere nañiko luzia, manteliñak. Unga mozorratuak bezala yuan bihar izaiten genun han... apezan antziñekaldera. Ta ek, ere ezpazuten yendia ungi ikusten, ungi yauntziya zuayela, hagitz*

begitarre txarra itenzten. Ta bueno, ordun barurikān yuateko bihar zaitenun komuniua hartutzerat e. Ta, igual goizian goiz yiki lanak itera ta gero barurikān han eztakit noiz arte... komuniatu bihar bagenun. Eta komunitzeko, komunio ttikiya itekō ta haundiya itekō re portzikaso zerbaitere... ur pixkot edaten balíImagenun arpegia garbitzeke denborian ere. Hura pekato izugarriya izaiten zen. Igual kapaz izaiten ziren komuniua ez emaiteko re, harengatikan. Ta, eta, gero latiñen dena kantatzen genun. "Salve regina ta tanto unelko" ta ungi hango kantak ungi ikasiak gintun. Ta guaingo, guain biño errespeto gehigo izaiten zen. Ta, bueno, beti, kanpuan, itxian, esizan ta... beti... bizituak gera, beti belduk haundeyakjin ta beti hagitz umill. Guain, ikusi guaingo libertadia ta orduku... ya eztaiteke siñetsi re! Hori ikusi dunak bakarrik daki zer dien pasatuak. Lehengua izanen zen sobera, ta guaingua re sobera, guañikan ezta neurrrira alleto zanen.

Guk guaingo uskara hau eztugu hagitz konpreintzen ere, gure

*uskara hau da arron lengua. Titikitan gure atta ta ama ta atautxí ta amautxik ikasi... erautsiko solasa du. Ta hillautik re ez ditugu hagitz guaingun berdiñak erraiten. Franko... difentiak erraitentu. "Hilbelta, otsaila, martxua, apilla, maiatza, ekaina, uztaila, aguztua, iraila, urriya, azarua ta abendua. Beueno, guainguak franko difentexiguak dire, biñon solasa guzeyak ta herri guzitan difentik baitie... Ez tu denak berdiña erraiten ere.*

*Ta, gu, gere denboran, mendixan aunitz ibillia nahiz ni. Ardiyak itzitzera yuaten nintzen mendira. Han bildutzen nituen, han ibiltzen nintzen mugaz muga. Mugan izaiten gintun, fronteran ardiyak eta bueno, han ere zaitentzien, gure kontrariuak izaiten gintun eltzetzuak ta ek beti emaiten ginzten guri errista. Guk, ger denboran bihar izaiten genun ateri "salbo conduktua" edo ageri bat eta han paratzen zuen ibilli bihar zula de sola sola gu al den bezala ibiltzen giñen, beti, eken erristak aditzen. Ta, ardeyak bildu ta itzitzen gintun borda batian eta gero yuaten giñen*

*primaberan, zerri bazka ateitzen zen larriak; anburua guk deitzen genion.*

*Astua hartu ta zakuan ek kartzen gintun astuantzat, zerreyantzat ta egosita emaiten genion igual bazka. Ta gero, iratzia re, orduan pil bat pikatzen zen, guaingo aldian. Bi hillauta han pasatzen gintun iratz pikatzen. Eta ni gaztina bezala, beti yan garrayo. Ta bazkaria hartu buruan gañian saskiya eta lepua firme-firme parato eta aisa, ungi ikasi nuen ibiltzen sasiya buruan gañian. Ta gero, han bazkaltzera eman ta berrizere saski utsak jn torri beiti. Eta bueno erautzen genun bazkaria, ordun, illar gorri ederra iten genun, itxeko illarra izaiten genun. Eta ordun urriyan zaiten baitzen iratz pikatzeko sasoya, ordun ardi zar batzuk hiltzen gintun. Gisado batzuk ederrak in ta gero sagarrak ere aukera izaiten genun sagarra erriak ere erautzen gintun mendira. Eta gero, gasna, hori itxeko gauzak izaten nun ausarki, hori izaiten nun bentaja hori. Ezkenun yanan miseririk izaiten itxeko yana iten nun urte osoko ausarki. Ta gero, bazkaltzera eman ta itxera etorri ta berrizera beyan bazkak. Zaiten nun labrantza haundeya. Eta maldak, han gosta iten zaigun bazkak itia. Asto txar batekin garraitobihar*

*izaiten nun eta bazkak egin ta gero, bueno, illunabarko lanak, Han,  
zerriyak ziela ta beyak ziela... ek edanazi ta zerreyak bazkato ta zaiten  
nitun lanak, Egurra, sua bixtutzekeko xeto ta izaiten zen lan pilla bat  
prestato biharra. Ta gero, bueno, gabako afaria amak prestatzen zuen. Eta  
ezkenun izaten gauza haundirikan biño, bueno egurdiko sobrantia  
berrizere. Gero esnia. Esne ona izaiten nun, hori, bei esnia ona izaiten nun  
ta arekin ungi asiak gelditzen giñen. Gero gaztaña ta itxeko gauza, zerrikia  
ta itxeko gauza yaten nun. Ta sagarra re bai. Sagar ona izaiten zen orduan,  
sagar klasa onak eta bueno pasastzen nun ederki. Sua ederra in ta nahiz  
antzintik beroto ta bieltik oztutzen giñen pasatzen genun altxe gaba  
erdirarte. Gero arrosariua. Hori eztaila faltato! Eta gero, beti izaiten zen  
zerbaitere. Illara miaurtze lana, edo artua miaurtzen. Sukaldin aspillera  
haundi bat hantzen edato eta ekarri artua edo illarra ta han arrosariua,  
artua ta illara dena nahasiyak... Eta bueno, ainbertze izaiten giñen familiarian  
denak hantxe... eta denak hantzen pasatzen genun. Eztakit ze baleyozten  
orduko erosayuak, Guinguak biño geyo akaso balyozten, biño denak,*

erauten nitun "a rajatabla". Ta maya egurditan ere beti bedeintzen nun eta bueno... hagitz, guaingo aldian ordun, hagitz religio haundiya zen, hala iraustenzten apezak. Eta guain, bueno hagitz kanbiatuak die apezak ta yendik ere bai. Ta orduan apezan errana hagitz xintxo itenzten. Elizan pulpitotikan apezak erraitentzuna, gure attak berrizere itxera erami ta hura egurdin berrizere zaiten zun bertze sermoya erran biharra han. Ta, bueno, guaingo aldian, hagitz difente zien orduan.

Gu, sei senide giñen. Ta, zarnak zien pixkot guretikan trabiesxiguak ta difentixiguak ta beti ekin errista emanez arront ondarrian gaxtato zien. Ta, bazuten orduan anaiak bazuen diro pixkobat bankuan ta gustatzen zaion ehizira yuaria. Attak etzion erosten eskopetikan, ta gogoto zaion egun batian bihar zula bankoko dirua ateri ta erosia. Ta ateri zuen bankoko dirua eta han zeukan itxian ixillikan eskopetikan ta dirorikan itxian altxatua ta bankeruk erran zion attari dirua ateri zuela. Ta atta orduan beila hasi zaion hareri erristan ta diru hura non zuen. Ta eskopeta bihar zuela

erosi. Ta erosi zuen eskopeta, utzi zion attak eroastera. Erosi zuen ta yuan zen mugara ehibira eta han ateizkjon jendarmak ta etzuen izanen hagitz gargirikan, autorizazione haundirikan ta kendu zioten. Berrizere erristako bidia parato zuen. Berrizere eskopetik gabe itxera eta gero izando zuen... etzuen suerte haundirikan izando. Yuan zen gero gerrara eta han hil zuten hillauter baten buruan, gerran. Eta, zen frente bat hagitz fuertia tokato zaion... Albarrazil, Teruel. Eta, bueno, hantxe akauto zen aren biziya.

Ta gero haren antziñekua, ahizpa bat, hura heldu zen franko koketa berez ta hareri re beti... guapa zen hagitz ta etzuten nahiztena iten berekin. Orduan, guain eztu importzen biño, ordun titi pixkot agertzia pekato izugarriya zen ta hareri gustaten zaion agertzia. Eta beti eerristan ibiltzen zten. Eta bueno, gustatzen zaion leitzia re aunitz nobelak. Ta denbora hietan ezkenun izaiten argirikan. Guatzera yuateko izaiten gintun xiri muttut, bela muttur batzuek ta ekinbihar izaiten genun guatzera yuan ta iten genun itzali ez gastatzeko. Ta hareri gustatzen zaion leitzia guatzian

*ta aritzen zen leitzen ta arrautu zuten ta berrizere bronka. Argeya  
itzaltzeko ta ez aritzeko leitzen. Biño arek ere pentsatu zuen ongi. Orduan,  
denbora hetan bazien alko muebleak zien mexuntxi luze batzuek han  
kabitzen zen argeya ederkí ta atta ta ama yuan arte guatzena sartutzen zun  
mexutxí barrenian ta ek yuaten zien denborian, ateri argeya ta aritzen zen  
leitzen. Ta, bueno, hura ere hillá da guain. Hura gaitzez. Seitikan lau gera  
guain bizi.*

*Ta guañikan oroitzen naiz anaiak ze in zuen. Kamion bat bazen  
astian kartzen zuena horko... herriko gauzak Iruñitik eta alleto zen  
denborian plazara, han deskartzen ari zirelikan hura gogoto zaion  
kamionan barrenera sartutzena. Ta sartu zen, eta berrizere bueno, errista  
eman zioten, atta etorri zen denborian. Ta berrizere attari erran zioten ze in  
zuen harek, Kamionin barrenin sartu zela. Bererizere bronka. Bronka,  
bronkan gañian, etzen gelditzen ere. Gero ondarrian, ya etzekjen gaxtak  
bertzerikán egiten hainbertze bronka aditoz.*

*Ta, orduan, gionek elkarren artian hasertzen giñenian ezkenun izaiten bertze dibertsio haundirikan eta paraten gintion izengoitiak, elkarreri. Hasertzen giñenian hura izaiten genun gure dbersiua. Elkarreri hasi, batin: "Norberto kakalerto", bertzia, izen raruak gintuen "Urtxula tipula" bertzia "Benardina beya" bertzia, "Mari Paz ollo beltz" bertzia, "Pakito tatayua" ta ni gaztina, "Ipurtzikin". Denak nere ipurdiri begira egonak izanen zien.*

*Guañikan oroitzen naiz, zarnak gustora egoitzen ziren guatzian. Yeustako etziena beti yikeya. Ni gaztina yikeya (jeikia), ta ama beti niri guañikan laudatzen. Beti oyuka bertziri mugitzeko zanpantzarrak, ta niri berrizere, ni han beti mañak iten, ni yikeya nintzela erraiten. Ta ni kontent ama kontent zela nerekijn. Yeus ez intare ni yikiya nintzela kontent zen nerekijn.*

*Guk ttikitán zaiten gintun juego batzuek. Ezkenun bertze yuxtai*

llerik izaiten, ta geunek pentsatzen genitun. Aritzen giñen "Kantantonka". Bateri begiya bendato pañulukin eta bertzik han, xokotan gordiak Hek begiyak bendatuak arrauto biharztuen. Eta, bueno, aspero arte han ibiltzen zen ezin arrautoz. Eta, gero, bertze... zaiten genun "Kandeleroka". (Lasterka elkarren gieltikan, eta hura arrautzekin "hatzen" erran eta berrizere harek arrauto bihar zuen bertze bat.) Ta gero aritzen giñen bertze... "marraka" ere bai. Iten nitun kuadro batzuek lurrian eta ek han saultoka marra etan, kuadro etan ibiiltzen giñen. Ta bueno, beti izaiten genun, negu aldian ta berogarreya soka saltuan ta berotzen giñen ederkj. Ta, gero tabatan ere aritzen giñen orduan. Itxian bildotxak ta ardeyak ta iltzen gintun eta eken tabak altxatzen gintun ungi. Ta ek gero, garbito ta pintato ta ekin ere zaiten gintun juegu. Ta gero, kartatan ere aritzen giñen. Ta, hola, gieunek pentsatzen gintun juegu hoitikan ezpaizen bertze dibersiorikan gieunek elkarren artian ederkj aritzen giñen yuxtetan.

*Yuxtaillua, ni oroitzen naizenez, erregiari galdeto nion behi pare*

*bat. Ikusi nuen herreyan eskaparate batian, karro hori batekin ta behi pinttarri batzuek. Eta ek galdeko nintio. Ta amari erran nion erregiri galdeko nintio la karrukin behi paria. Ta amak orduan, bueno, ni gaztina ta niri gustua itiagatikan erosio zanen zuen eta huraxe utzi zian. Nere denboran oroitzzen naizen... Gero, etzizkidan muñekak ta hoiek, etzizkidan beñe gustatzen. Nik eztakit, beti azintan tartian kostunbratua nintzen edo ez nun bertzerikgan ikusten... Beti galdetzen nituen hoyek, Ni oroitzzen naizela, hori, nere denboran, yuxta illo bakarra izando nuen.*

*Gure antzinako zaharrak beti izaitenzten erraera zaharrak eta guk... baitut burutan geldituak,*

*Erraitenzten: "Goiz gorri, arrats euri". Ta hori izaiten zen, balinbazen eguraldi gorriya arratsekiko heldu zela uriya.*

*Ta bertze bat bazen: "Itxeko sua itxeko hautsarekin gorde". Ta*

*horrek erran nahi zuen itxeko falluak itxin geldito bihar ziela.*

*Bertze bat bazen berrizere: "Zorri hil bixtua, zorri gaxtua". Eta hori aunitzetan aditzen nun. Igual bere denboran yeus etzen izando eta izando zuen gero suerte pixko bat eta arront goiti yuaten zen ta hura zen gaxtua.*

*Ta haur batek zerbaite gaxtakeri iten zun denborian erraiten nun segiduan: "ezta gaxtakeri zuzenik". Denak dire okerrak,*

*Leno, gure denboran, denak xurrak giñen eta zenbait irri iten ginzten. Erraiten ginzten: "Xurrak boltsan bi zulo".*

*Goiztan, beti perezakin yikitzen giñen ta gero amak erraiten ginzten: "Goiz jaiki, goiz gose, berando jaiki, loz hase". (Bitik batian hobia izanen da berando yikitzia).*

*Ta bertze bat, berrizere beti izaiten nun ezin arrauto nituen gauz  
batzuek ta zenbait aldiz errana: "Zerri gosiak ezkurra amets".*

*Aurten, iduitzen zaigu heldu dela, erraiten ten bezala "Kandelero  
bero, negua heldu da gero, kandelero hotz, negua izanen da motz". Ta,  
goiz haseyak gera hotzakin ta iduitzen zaigu akautoko dela goiz.*

*Ordu erdi bat huntan ari naiz lengo konto zaharrak burura ekartzen,  
eta ainbertze baitu pasatuak, onak eta txarrak, ya unekin akautzeko ordu  
izanen da noski.*